# MUNGIARRA

MUNGIA UDALA

www.mungia.org

## Ekonomia Sustapena

LED argi barriak jarri dira merkataritza eta gabon giroa sustatzeko

## Herritarren parte-hartzea

2018ko mungiarron egutegia

## Gure dirua

Aurrekontuen bistaratzailea, administrazinoaren gardentasuna gehiago zabalduz



# Aurrera goaz enplegu gehiago sortzen









59

diciembre 2017ko abendua



Ager Izagirre, Mungiako alkatea

Kaixo mungiarra!

Bajoaku beste urte bat. Orain dala urte bete sortutako gurariak bete ahal izango zenduezala espero dot. Gu saiatu gara genduzan konpromisoak betetuten, eta, neurri handi baten behintzat, lortu dogula uste dot.

Dana dala, ezin gara lasaitu, eta batez bere, beharrizan gehien daukienakaz euki behar dogu begirune handiagoa.

Langabeziak beherantzako joera hartu dauen arren, hondino jende asko dago behar egin gurean eta ezinik. Horregaitik aurten bere, barriro imini dogu martxan, Eusko Jaurlaritzaren laguntzagaz, Enplegu Plan bat. Bederatzi pertsona kontratatuko doguz aldi baterako, behar egiteko aukera bat emoteko eta euren egoerari aurre egiten laguntzeko. Batez bere, emakumeak, 55 urtetik gorako pertsonak, eta luzaroan langabezian dagozanak izango dira kontratatuko pertsonen perfilak.

Behargintzatik behar handia egiten gabilz, langabezian dagozan pertsonen egoera hobetu gurean, eta datorren urtean bere holan jarraituko dogu. Gure lehentasunetako bat da.

Beste alde batetik, oso pozik gagoz, martxan imini doguzan eta iminiko doguzan prozesu partehartzaileakaz: euskera foroak, kanpoko igerilekuak, Goietako umeentzako gune estali barria….. Itzel eskertuten doguz jasotako proposamenak eta zalantzak, hobetzen laguntzen deuskue eta.

Amaitu aurretik, animatu gura zaituet Udalaren web-orrian sartuten eta oraintsu martxan jarri dogun aurrekontuen bistaratzailea ikusten. Berton daukazuez Udalaren diru guztien ganeko xehetasunak. Bai nondik jasoten dan dirua, baita zertan gastatzen dan bere.

Beste urte bati ekingo deutsagu laster. Hartu daigun ilusinoz beterik, sentidu gaitezan harro lortutakoagaz, eta begiratu deiogun aurrez datorrenari. Mungia pertsonengan oinarritzen dan herri modura eraikiten jarraituko dogu.

ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!

*Ager Izagirre, Mungiako alkatea*

**Kaixo mungiarra!**

Este año hemos conseguido cumplir, en gran medida, los compromisos que teníamos. Sin embargo, no podemos relajarnos y debemos tener en consideración a las personas más necesitadas.

A través de un Plan de Empleo, y en colaboración con el Gobierno Vasco, hemos contratado 9 mungiarras. Desde Behargintza estamos esforzándonos para mejorar la situación de las personas desempleadas.

Asimismo, estamos trabajando con entusiasmo con los procesos-participativos y agradecemos las propuestas que nos habéis hecho llegar.

Quiero animaros a entrar en el nuevo visualizador de presupuestos de la web del Consistorio, donde podréis ver con detalle de dónde viene y a dónde va el dinero del Ayuntamiento.

Recibamos el año nuevo con ilusión, sintiendo orgullo de lo conseguido y mirando hacia delante.

ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!

*Ager Izagirre, alcalde de Mungia*

# Langabetuen kontratazinoak bultzatzen

**2017 ko eskualdeko enplegu plana**

Aurten bere, Mungialdeko Udalek langabezian dagozan pertsonen kontratazinoa bultzatuko dabe Eskualdeko Enplegu Planaren bitartez. **Mungiaren kasuan, 9 pertsona kontratatuko dira**. Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak daukiezan pertsonei laguntzea da lan kontratuon helburua.

Programa honek Mungiako Udalerako 161.283,59€-ko kostua dauka, baina Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak 109.503,79€-gaz lagunduko dau diruz, hau da, %67,80agaz.

Programa honetako hartzaileak honakoak izango dira: **langabezian luzaroan dagozan pertsonak; emakumeak, gazteak eta 55 urtetik gorakoak; Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) hartzaileak eta, orokorrean, gizarte mailan baztertuta lotzeko arriskuan dagozanak.**

Kontratatuta dagozan denporan, Mungialdeko Behargintzaren lan-orientazino zerbitzuen laguntza jasoko dabe, hain zuzen bere, enplegu-programa bukatutakoan, lanean hasteko erraztasunak eskainiko deutsiezan alderdi pertsonal eta kurrikularak lantzeko.

**MUNGIAN KONTRATATUTAKO 9 LAGUNEK HERRIARI ZUZENDUTAKO PROIEKTUETAN HARTUKO DABE PARTE.**

**Mungiako Udalaren kontratazinoak**

Mungiako Udalak 6 hilabeterako 9 kontratazino egingo ditu abenduan. Kontratatutako pertsonek burutuko dabezan lanak herriari zuzendutako proiektuetarako izango dira. Kontratatuak Mungian erroldatuak eta, aldi berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan alta emonda dagozan pertsonak izango dira. Kontratatu barrien %30 DBE hartzaileak izango dira, %40 emakumeak eta %15, barriz, 55 urtetik gorakoak.

Mungialde osoko kontratazino programeak 249.955,65€-ko kostua dauka, baina Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak emondako 155.686,80€-ko diru-languntza jasoko da horretarako.

Informazino gehiago jasoteko, Mungiako Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuen lokalera edo Mungialdeko Behargintzara joan daiteke.

Desde el Consistorio se está realizando la **contratación de 9 personas desempleadas** dentro del Plan de Empleo Comarcal. Estas contrataciones facilitan el acceso al mercado laboral de personas con especiales dificultades de inserción.
Entre **los colectivos destinatarios** de este programa están las personas en situación de desempleo de larga duración; mujeres, jóvenes y personas mayores de 55 años de edad; personas perceptoras de Renta de Garantía de Ingresos (RGI) y personas en situación de riesgo de exclusión social.
El programa supondrá para Mungia un desembolso de 161.283,59€, recibiendo una subvención de 109.503,79€ de Lanbide-Servicio Vasco de Empleo, es decir, un 67,80%.

# Promoción de la empleabilidad

**Lan Berri 2017**

Mungialdeko Behargintza va a impartir **dos acciones formativas** a través del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 51/2017 con el objetivo de **insertar en el mercado laboral** a personas con especiales dificultades. Este decreto establece la convocatoria y bases de subvenciones Lan Berri para la **promoción de la empleabilidad de personas con especiales dificultades de inserción laboral** del territorio histórico de Bizkaia.

Estos cursos están dirigidos a:

- Personas desempleadas mayores de 45 años de edad.
- Personas desempleadas de larga duración que acrediten no haber trabajado más de un mes en los 13 meses anteriores al inicio de la formación
- Personas con discapacidad en un porcentaje igual o superior al 33%.
- Personas en riesgo de exclusión.

**Las formaciones son:**
- Maquinaria de movimientos de carga y almacén.
- Atención socio sanitaria de personas dependientes en instituciones sociales (íntegramente mujeres).

**Lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak daukiezan pertsonen** enplegagarritasuna handitzeko, prestakuntza akzino bi eskatu ditu Mungialdeko Behargintzak Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartez. Formazio gai horreen eremuak ondokoak izango dira: **Biltegi eta karga-mugimenduetako makinaria eta Gizarte-Erakundeetan dagozan menpeko pertsonentzako arreta sozio-sanitarioa.**
Kurtso hauek 45 urtetik gorako langatuei, iraupen luzeko langabetuei, %33 edo gehiagoko ezgaitasuna daukien pertsonei eta gizarte-bazterkereta arriskuan dagozanei zuzenduta dagoz.

# Enpresetarako Prestakuntza: Bizkaia Orekan Programa

Mungialdeko Behargintza está realizando cursos de formación teórico-prácticos para mikropymes y pymes. En octubre se realizó la fase teórica mientras que ahora las empresas están recibiendo tutorías individuales en las que el profesorado está yendo a todas las empresas para ayudar a aplicar lo aprendido.

Mungialdeko Behargintzak, inguruko beste garapen agentziakaz batera, eskualdeko mikropyme eta pymeen oinarrizko **enpresa kudeaketa hobetzeko helburuagaz, trebakuntza teoriko-praktikoak antolatu** ditu.

Lehenik eta behin Mungiako enpresei galdetu jaken ze gaitan jaso gura eben prestakuntza. Garapen Agentziek gure herrian eta inguruko herrietan hartutako emaitzak kontuan izanda, ondoko alorrak jorratzea erabagi zan:

- Kudeaketa Estrategikoa.
- Ekonomia-finantza kudeaketa.
- Merkataritza kudeaketa.
- Gizarte Sareen kudeaketa.

Lehengo fasean, urrian, informazino teorikoa eskaini da, hau da, Mungialdeko Behargintzako egoitzan Ekonomia-finantza kudeaketaren trebakuntza eskaini da. Kurtso honeetan Mungiako 10 enpresak hartu dabe parte; eta eurotako batzuek baten baino gehiagotan emon dabe izena.

Enpresa honeek guztiak izan dira 15 beharginetik beherakoak, eta alor desbardinetakoak; besteak beste, metal- eta elikagai-industriakoak, kontsultoriak eta eraikuntzakoak.

**ORAIN ARTE ENPRESETATIK JASOTAKO ERETXIAK GUZTIZ POSITIBOAK IZAN DIRA.**

Bigarren fasean, **enpresak 4 orduko banakako tutoretzak jasoten** dabilz; hau da, irakaslea enpresa guztietara doa, aurretik teorian ikusitako gaiak enpresan bertan aplikatzen laguntzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Lurralde eta Garapena Sustatzeko Sailak eta BEAZ-ek sustatzen duten *Bizkaia lehiakorra eta lurraldez orekatua* proiektuaren barruan.

# Talleres Beti Aurrera

La situación de desempleo no es fácil. Son momentos de incertidumbre donde nuestra autoestima se ve tocada y nuestros miedos salen a la luz.

Se han utilizado técnicas de crecimiento personal como Rebirthing, Mindfulness, Coach y Motivación.

Por ello, desde Mungialdeko Behargintza se ha desarrollado el proyecto Beti Aurrera con el **fin de apoyar a la gente desempleada a mirar hacia adelante**. Este ha constado de tres talleres de 5 horas de duración.

En el primer taller, *Nuestro Momento*, se ha **trabajado el momento actual de cada participante**. En *Autoestima*, **las y los participantes han trabajado su autoestima**, tratando de mejorarla y buscando herramientas para hacerlo. Por último, en *Mirada al Futuro*, se ha valorado **la evolución desde el primer día** concretando las metas a conseguir.

Langabeziak beldurra eta seguridade falta ekarten dauz eta kalte egiten deutso auto-estimuari. Hori dala eta, Mungialdeko Behargintzak "Beti Aurrera" proiektua gauzatu dau, hau da, 5 orduko 3 tailer, langabezian dagozan pertsonei aurrera begiratzen laguntzeko.

# Formación para preparar oposiciones

Con el fin de dar respuesta a la gran demanda de personas que acuden a Mungialdeko Behargintza consultando y solicitando información sobre oposiciones, academias de preparación, temarios, convocatorias y demás temas relacionados, se ha visto conveniente la impartición de formación para la preparación de las inminentes oposiciones de Osakidetza previstas para mayo- junio de 2018.

Osakidetzako oposizinoetarako prestatzen laguntzeko kurtsoa hasi da Mungian. Horren bidez, 60 orduan, erakunde publikoen oposizinoetako gai ardatzetako prestakuntza eskainiko da.

Dicha formación, que tendrá una duración de 60 horas, se desarrollará en Mungia en horario de mañana los martes y jueves a lo largo de tres meses. En esta se impartirá la materia troncal que servirá para otras convocatorias de oposiciones de instituciones públicas.

La formación ha comenzado en noviembre y finalizará a primeros de marzo.

# Mungialdea Sortzailea

Eskualdeko gazteen enplegagarritasuna hobetzeko asmoz, Mungialdeko Udalek eta Bizkaiko Foru Aldundiak dinamika ezbardinak eta tailerrak lantzen dabilz **Bentades Ikastetxeko, Mungia Oinarrizko Lanbide Heziketako eta IES Mungiako** 14 eta 17 urte bitarteko ikasleakaz.

Ekintza horreen bitartez ekintzailetzaren ganeko oinarrizko ezaguerak eskaini gura dira da lan munduan txertatzea errazteko. Horretarako, ikasleek hausnartu dabezan negozio ideiak landu dira era entretenigarri eta parte-hartzailea erabilita.

Ikasgeletan garatutako lana abenduaren 20an, arratsaldez, aurkeztuko da ***Mungialdea Sortzailea II. edizioan***, Udaleko Erakusketa Gelan. Zentro bakotxeko ekimen onenek diploma bat eta sari ekonomiko bat jasoko dabez.




## Impulsando el emprendimiento

Los municipios de Mungialdea y la Diputación Foral de Bizkaia están impulsando la **mejora de la empleabilidad y el emprendimiento de la juventud** de la comarca dentro de la segunda edición de **Mungialdea Sortzailea**.

Se trabaja con el alumnado de 4° D.B.H, 1° Bachiller y Formación Profesional Básica de **Bentades Ikastetxea, FP Básica Mungia e IES Mungia**, es decir, jóvenes de entre 14 y 17 años.

Durante tres sesiones se combinan diversas dinámicas y talleres que plasmarán los proyectos desarrollados en un soporte físico.

Durante tres sesiones se combinan diversas dinámicas y talleres que plasmarán los proyectos desarrollados en un soporte físico.

La iniciativa busca **facilitar conocimientos básicos sobre el emprendimiento** como alternativa a la inserción laboral. Para ello se trabajan, de una forma amena, participativa y colaborativa, ideas de negocio que ha madurado el alumnado.

El trabajo desarrollado de forma grupal en las aulas se presentará al público el 20 de diciembre por la tarde en ***Mungialdea Sortzailea II. edizioa,*** en la sala de exposiciones del Ayuntamiento de Mungia, en el apartado ***Mungialdeko Gazte Sortzaileen Azoka.***

En la feria también se entregarán ayudas a siete jóvenes de la comarca que han puesto en marcha sus iniciativas empresariales en 2017.

En dicho evento se podrán conocer los proyectos e interactuar con la juventud promotora. Las mejores iniciativas de cada centro **recibirán un diploma y un premio económico** que destinarán a realizar alguna mejora en su centro formativo.

En la feria también se entregarán ayudas a siete jóvenes de la comarca que han puesto en marcha sus iniciativas empresariales en 2017.

# Herriko dendari eta artisauen Gabonetako Azoka

El comercio y artesanía de Mungia volverá a llenar de navidad las casetas ubicadas en Euskal Pizkundea Etorbidea, con la tercera edición de Gabonetako Azoka. Del 20 al 24 de diciembre, la plaza acogerá además diversas actividades para las niñas y niños y un puesto de talos.



Euskal Pizkundearen Etorbidea Gabonetako giro eta kolorez beteko da azokeagaz.

**Gabonetako erosketak egiteko aukera ederra**

Abenduren 20tik 24ra Mungiako Gabonetako Azokaren 3. edizinoa izango dogu Foruen Plazan. Gune horretan herriko merkatari eta artisauek euren produktuak jarriko ditue salgai, dotore-dotore apaindutako egurrezko 19 etxolatan.

**EKIMEN HONEN BIDEZ HERRIKO MERKATARITZA ETA OSTALARITZA SUSTATU GURA DA KONTSUMO HANDIKO SASOI HONETAN.**

Umeentzako hainbat ekintza eskainiko dira bertan; besteak beste, Mari Domingi Olentzerorentzako eskutitzak jasotzen eta Izenaduba Basoko pertsonaia mitologikoen bisita. Horren ganera, Aitor Aurrekoetxearen talo-postua bere bertan izango dogu.

Azokan ondoko parte-hartzaileak egongo dira: *Ainarita Ceramica artisaua, Bitxiko Oinetakoak, Gelati-Gelati* izozki-denda eta gozotegia, *Gurea Modak, Iranai, Iratxo Oinetakoak, Kattalin Bitxiak artisaua, Marsala Artisautza, Pitxiak denda, Puk&Co denda, Urperatu* artean, *Ryelma* denda eta *Sesamo moda.* Horreen, ganera, inguruko artisauen lanak bere salgai egongo dira azokan: *Eguzkilore Artisautza, Galtzagorri, Itxasloo, Kekelis Bitxigintza&Alkimia eta Suso Bitxigintza.*

# Gabon-argiak Mungian

**LED argi barriak jarri dira merkataritza eta gabon giroa sustatzeko**

Mungiako Udalak Gabonetako argi barriakaz apaindu dau herria eta bertako merkataritza-gunea. Sano garrantzitsua da gabon sasoian inguru atseginak eta erakargarriak sortzea, **herriko establezimenduetan kontsumoa sustatzeko** eta indartzeko eta **kaleetan Gabonetako giro atseginaz gozatu ahal izateko**. Hori dala eta, argi barriak dagoz Aita Elorriaga, Alkartasuna, Butroi, Landetxo, Lauaxeta Olerkari eta Trobika kaleetan.

Argiak **LED motakoak dira** eraginkortasunik handiena lortzeko eta, aldi berean, argindarraren kosturik txikerrena. Proiektu hau, Eusko Jaurlaritzaren Hirigune - Hiri-merkataritzaren lankidetza, dinamizazio eta lehiakortasuneko zonako estrategiak sustatzera bideratutako programaren barruan sartzen da eta horren **helburua merkataritzarako agertoki lehiakorragoak eta profesionalagoak lortzea da.**

Merkataritza Indartzeko 2014ko Plan Bereziak eremu hau zehaztu zuen eraginik handieneko merkataritza-gunetzat.



Kostuei eta ingurumenari erreparatuta, argi barriak LED erakoak dira.

Mungia realza sus calles en esta época navideña con nuevas luces LED que consiguen crear un ambiente acogedor e impulsar las zonas comerciales del pueblo.

# Mungialdearen onerako lanean dabilzanentzako omenaldia

Gure eskualdeagaitik lan egiten dabenak saritzeko, urrian *DEIA-Hemendik Sarien X. edizinoa* antolatu zan Olalde Aretoan.

Mungian honeek izan ziran sarituak:

- **Kepa Deuna Futbito Txapelketa:** Herriko jaietan sendotutako kirol ekitaldiak 40 urte bete ditu. Bertan 65 futbito taldek hartzen dabe parte.
- **Danontzat Elkartea**: 1978an sortua, edadekoen bizitza aktibatzeko hainbat aisialdi-aukera eskaintzen ditu.
- **Larramendi Ikastola**: 50 urte egin barri, herriko elizako lokalean sortutako zentro honek 1.300 ikasle inguru ditu gaur egun.



Kepa Deuna Futbito Txapelketa, Larramendi Ikastola, Danontzat alkartea eta Arrautza Gorringo Mikologia Alkarteko kideak Ager Izagirre alkateagaz

- **Taberna Ibiltaria**: Euskal kanten taldeak 18 urteko ibilbidearen aitorpena jaso zuen.
- **Arrautza Gorringo Mikologia Alkartea**: 1983tik martxan, perretxikoen ganeko informazinoa zabaltzen egiten dau lan.

**UDALEKO TALDEOK GURE ESKUALDE ETA HERRITARRAKAITIK EGITEN DABEN LANA ESKERTU ETA ZORIONDU GURA DOGU. AUPA ZUEK!**

Diversos colectivos de la zona fueron homenajeados con los X Laboral Kutxa DEIA Hemendik Sariak por su compromiso y labor por la comarca y sus vecinas y vecinos.

Las asociaciones de Mungia premiadas fueron: **el Campeonato de futbito Kepa Deuna, Danontzat Elkartea, Larramendi Ikastola, Arrautza Gorringo Mikologia Alkartea y Taberna Ibiltaria.**

## Gure Ametsa Txistulari Taldeak Euskera Saria jaso dau




Gure Ametsa Txistulari Taldeko kideek pozik batu eben Euskera Saria.

### Euskeraren Eguna 2017

Aurten, urtero lez, abenduaren 3an Euskeraren Nazioarteko Eguna ospatu dogu mungiarrok. Egun horri zor deutsaguna emoteko, ganerako urteetan bezala, ekitaldi ofiziala egin dogu egunean bertan.

Lehenengo-lehenengo, 2017ko Lauaxeta Olerki Lehiaketako sariak banatuko ziran eta, ostean, Euskera Saria emon jaken Gure Ametsa Txistulari Taldeari. Giroa animatzeko, Udal Dantza Eskolako gazteen dantza-emonaldiaz ganera, Alex Sarduik eta Mikel Caballerok kanta-aukeraketa berezi bat eskaini euskuen.

# Propuesta de diseño para las nuevas piscinas exteriores

**Escuchando las opiniones de las y los mungiarras**

Las piscinas exteriores del Polideportivo Municipal serán renovadas en su integridad **para mejorar la calidad del servicio ofrecido.**

> Los trabajos **finalizarán en mayo** y contarán con un presupuesto de 800.000€.

A mediados de noviembre **se presentó la propuesta de diseño de las nuevas piscinas exteriores** en una sesión abierta a toda la ciudadanía. Desde entonces, el diseño ha estado expuesto en el Polideportivo para que, **a través de un proceso de participación ciudadana,** las personas interesadas **pudieran depositar su opinión en el buzón físico** dispuesto o a través del **correo electrónico** kanpokoigerilekuak@mungia.eus.

Os mostramos algunas de las cuestiones que nos habéis hecho llegar:

### 1. ¿Por qué es necesaria la reforma de las piscinas exteriores?

Es una instalación hecha hace aproximadamente 50 años, cuyo estado de conservación ha obligado en los últimos años a hacer grandes gastos solamente para poder abrirla.

El personal técnico afirma que, en su estado actual, es muy probable que no pueda volver a utilizarse tal y como está.

### 2. ¿Cuánto costaría hacer una instalación exactamente igual que la actual, sin más?

Entre 500.000€ y 600.000€.

### 3. ¿Cuánto costaría hacer la cubierta para poder usarla todo el año por las personas a las que nos gusta nadar?

Esta idea también ha sido analizada previamente y se estima que rondaría los 4 ó 5 millones de euros, en función del tipo de cubierta. Hay que tener en cuenta que este tipo de piscina sería climatizada, con lo que conllevaría también las necesarias instalaciones para ello, así como la adecuación del número de vestuarios a la normativa de piscinas interiores, por ejemplo.




Todo esto sin contar el aumento de costes fijos para su utilización tanto en lo que se refiere a personal, limpieza, suministros, mantenimiento….

En verano, las personas que quieran nadar tendrán a su disposición la piscina interior, con un horario de 10:00 a 20:00. En agosto, las piscinas interiores permanecerán cerradas durante una semana para realizar tareas de mantenimiento. Será la semana que menos afluencia de público hay: la Aste Nagusia de Bilbao.

### 4. ¿Hay prevista alguna otra inversión en el Polideportivo Municipal?

El año que viene se acometerá la mejora del sistema de renovación de aire del gimnasio.

### 5. ¿Cuáles han sido las inversiones en instalaciones deportivas en los últimos 15 años, por ejemplo?

Por citar solamente las más importantes, en grandes números, y siendo conscientes de que aún queda mucho por hacer:

- Fútbol (remodelación del campo, vestuarios, renovación hierba artificial, alumbrado, campo de Larreta…): 2.800.000€.
- Rugby (vestuarios, remodelación campo, back stop, acera perimetral….): 770.000€.
- Polideportivo (ascensor, entreplanta zona squash, acondicionamiento de piscinas interiores, reformas de vestuarios, ampliación gimnasio, zona exterior y pistas de paddel, acondicionamiento de almacenes, oficinas, reforma de terraza…): 1.400.000€

### 6. ¿Cuáles han sido las previsiones que hay de las futuras instalaciones deportivas de Mungia?

En este momento se está realizando un análisis técnico global de las necesidades que Mungia tiene y podrá tener en los próximos 10 ó 15 años, y las posibles alternativas que existen para dar respuesta a las mismas con nuevas instalaciones y sus costes de inversión y mantenimiento.

Una vez finalizado este trabajo técnico, se presentará para su contraste con los clubes y la ciudadanía en general.

### 7. ¿Se va a mantener la zona verde y el arbolado?

Sí, se mantienen. Afectará a una pequeña zona pero el arbolado se mantiene y es posible que se amplíe.

## Kanpoko igerileku barrien diseinu-proposamena

Udal Kiroldegiko kanpoko igerilekuak goitik behera barriztatuko dira, erabiltzaileei eskaintzen jaken zerbitzuaren kalidadea hobetzeko helburuagaz. Lanak maiatzean bukatuko dira eta proiektu honetarako aurrekontua 800.00€koa da. Orain, udal teknikariak herritarrengandik jasotako eretxiak aztertzen eta baloratzen dabilz.

# Mungiako kirol kluben talde federatuak

## Los grupos federados de los clubs deportivos de Mungia

| C.D. MUNGIA<br>**Talde Federatuak** Grupos Federados | GIZ.<br>MASC. | EMAK.<br>FEM. |
|---|---|---|
| Senior mailan, Bizkaiko Ligan<br>Categoría Senior, Liga de Bizkaia | 2 | 1 |
| Jubenil mailan, Bizkaiko Ligan<br>Categoría Juvenil, Liga de Bizkaia | 3 | |
| Kadete mailan, Bizkaiko Ligan<br>Categoría Cadete, Liga de Bizkaia | 4 | 1 |

Guztira: 236 neska - mutil  En total: 236 chicas y chicos

| MSK HOCKEY MUNGIA<br>**Talde Federatuak**<br>Grupos Federados | TALDE MISTOA<br>GRUPO MIXTO |
|---|---|
| Infantil mailan<br>Categoría Infantil | 9 umek osatzen dabe (8 neska eta mutil bat).<br>El equipo lo forman 9 niños, 8 chicas y un chico. |

Hockey eskolan beste 23 ume dagoz, guztira: 32 (24 neska eta 8 mutil).

| MUNGIA-BUTROI ESKUBALOI KIROL TALDEA<br>**Talde Federatuak**<br>Grupos Federados | GIZ.<br>MASC. |
|---|---|
| Senior mailan, Bizkaiko Ligan<br>Categoría Senior, Liga de Bizkaia | 1 |
| Jubenil mailan, Bizkaiko Ligan<br>Categoría Juvenil, Liga de Bizkaia | 1 |

| LARRAMENDI IKASTOLA KIROL TALDEA<br>**Talde Federatuak**<br>Grupos Federados | ESKUBALOIA EMAK.<br>BALONMANO FEM. | FUTBOL GIZ.<br>FUTBOL MASC. | SASKIBALOIA EMAK.<br>BALONCESTO FEM. |
|---|---|---|---|
| Senior mailan<br>Categoría Senior | | 1 | |
| Jubenil mailan<br>Categoría Juvenil | | 1 | |
| Kadete mailan<br>Categoría Cadete | 1 | 1 | 1 |
| Junior mailan<br>Categoría Junior | | | 1 |

| MUNGIA WATERPOLO IGERIKETA TALDEA<br>**Talde Federatuak.**<br>Grupos Federados. | GIZ.<br>MASC. |
|---|---|
| Senior mailan<br>Categoría Senior | 1 |

| MUNGIA RUGBY TALDEA<br>**Talde Federatuak**<br>**URIBEALDEA RKE izenagaz jokatzen dabe**<br>Los Grupos Federados juegan bajo el nombre URIBEALDEA RKE | GIZ. MASC. |
|---|---|
| Senior mailan, Espainiako Liga/ Ohorezko Liga, B maila<br>Categoría Senior, Liga de España/ División de Honor B | 1 |
| Senior mailan, Euskal Liga<br>Categoría Senior, Liga Vasca | 1 |
| Jubenil SUB 18 mailan, Euskal Liga<br>Juveniles SUB 18, Liga Vasca | 1 |
| Kadete SUB 16 mailan, Euskal Liga<br>Cadetes SUB 16, Liga Vasca | 1 |

| MUNGIA SASKIBALOI KLUBA | GIZ.<br>MASC. | EMAK.<br>FEM. |
|---|---|---|
| Senior mailan, bigarren maila nazionala<br>Categoría Senior, 2ª división nacional | 1 | 1 |
| Senior mailan, bigarren maila berezia<br>Categoría Senior, 2ª especial | 1 | |
| Senior mailan, bigarren maila B<br>Categoría Senior, 2ª B | | 1 |
| Senior mailan, bigarren maila C<br>Categoría Senior, 2ª C | | 1 |
| Senior mailan, lehen maila (Saskel)<br>Categoría Senior, 1ª (Saskel) | 1 | |
| Junior mailan, lehen maila berezia<br>Categoría Junior, 1ª especial | 1 | 1 |
| Junior mailan, lehen maila<br>Categoría Junior, 1ª | | 1 |
| Kadete mailan, lehen maila<br>Categoría Cadete, 1ª | 1 | |
| Kadete mailan, lehen maila A<br>Categoría Cadete, 1ª A | | 1 |
| Kadete mailan, lehen maila B<br>Categoría Cadete, 1ª B | | 1 |
| Kadete mailan, bigarren maila C<br>Categoría Cadete, 2ª C | | 1 |

| VALENTIN URIONA TXIRRINDULARI TALDEA<br>Talde Federatuak Grupos Federados | GIZ.<br>MASC. | EMAK.<br>FEM. |
|---|---|---|
| Bigarren Infantil maila<br>Categoría Infantil 2ª | 5 | |
| Lehen Infantil maila<br>Categoría Infantil 1ª | 5 | |
| Alebin bigarren maila<br>Categoría Alevín 2ª | 5 | |
| Alebin lehen maila<br>Categoría Alevín 1ª | 6 | |
| Benjamin maila<br>Categoría Benjamín | 5 | |
| Haurrak<br>Niñ@s | 1 | 1 |

| MUNGIA ATLETISMO TALDEA<br>**Talde Federatuak**<br>Grupos Federados | GIZ.<br>MASC. | EMAK.<br>FEM. |
|---|---|---|
| Beteranoa<br>Veterana | | 1 |
| Jubenil mailan<br>Categoría Juvenil | 1 | |
| Kadete mailan<br>Categoría Cadete | 1 | 1 |

# Euskera foroak



Olalde Aretoa izan zan parte-hartzaileen topagunea.

Euskera foroetan batutako **mungiarrek definidu dabez datozen urteetan gure herrian euskeraren erabilera indartzeko erabiliko diran estrategiak eta helburuak.**

Euskera Foroan batu zan jente ezbardinaren ideiakaz Mungiako Udaleko web-orrian ikusi daitekeen txostena osatu da.

Era eta edade guztietako (umeak izan ezik) herritarrak batu ziran Olalde aretoan egin ziran saio bietan, urriaren 19an eta zemendiaren 9an. Euskereak eguneroko bizimoduan, arlo guztietan, daukan erabilera zehatz aztertu zan bertan: familia, euskaldun barriak eta zaharrak, kirola, gazteak, merkataritza, umeak…

Hain jente ezbardina batzeak egoerea hainbat ikuspuntutatik ikusteko aukerea emon euskun danoi eta sano emaitza aberatsa eskaini deusku. **Azpimarratu beharreko idea nagusienetako batzuk** honeexek izan ziran:

- Danok bihurtu behar dogu eragile aktibo (hartzaile izatea ez da nahiko): gazteak, gurasoak, umeak, alkarteak…. Danon alkarlana behar da, erakunde, talde eta norbanakoena.
- Arnasgune gehiago sortu eta dagozanak indartu behar dira.
- Aisialdia (bideratua zein librea) oso lan-arlo garrantzitsua da.
- Lider euskaldunak behar dira arlo guztietan: alkarteetan, enpresa arloan (sareak sortu behar dira), aginte eremuetan, adin-talde guztietan…

Foroetan **esandako guztiaren ganeko txostena ikusi gura badozu**, sartu web-orrian: www.mungia.org.

Urtarrilean diseinatu eta onartuko dan planak oso kontuan hartuko dau foroetan esandako hori guztia. Plana zezeiletik gora izango dozue ikusgai Udalaren web-orrian.

Las y los mungiarras que participaron en Euskera Foroak, realizados en octubre y noviembre, definieron los objetivos y estrategias que se utilizarán en nuestro pueblo para fortalecer el uso del euskera en los próximos años. Para ver el informe sobre lo comentado en los foros consulta www.mungia.org.

# Gure auzo ederrek 2018ko egutegia beteko dabe

**Herritarren parte-hartzea handia izan da**

Atzera bere lortu dozue. Mungiarrok zuen herrian egiten diran ekintzen eta proposamenen alde zagozela erakutsi dozue. Izan bere, aurten ia 100 argazki aurkeztu dira MUNGIHARRO-Gure auzoak 2018ko udal egutegia irudiz jazteko, Mungiako Udalak antolatutako lehiaketaren bidez. Parte-hartzeaz ganera, aurkeztutako irudien kalidadea bere ona izan da.

Eskerrik asko irudiak aurkeztu eta argazkiak aukeratzeko botoa eman dozuen guztioi!

Lehiaketa honen helburua mungiarrengan dinamizazinoa sustatzea, egutegia herritarron parte-hartzearen bitartez sortzea eta, irudien bitartez harrotasunez zaintzen doguzan bazter eder eta gure herriaren nortasunaren ikur diran gure auzoak erakustea da.

Beste inon argitaratu ez diran argazki originalak aurkezteko epea urrian amaitu zan. Aurkeztutako argazkietatik epaimahaiak 40 aukeratu zituan. Aukeratutako horreek Udaletxeko erakusketa-aretoan egon ziran ikusgai azaroan. Bertan, herritarrek, botoen bitartez, euren gustukoenak aukeratu ebezan.

Asko izan ziran erakusketara hurbildu eta euren botoa emon ebenak. Boto-kopururik handiena lortu eben 13 argazkiek jantziko dabe irudiz 2018ko egutegia. Irudirik bozkatuena egutegiaren azalean joango da eta gainontzeko hamabiek urtarriletik abendurako tartea beteko dute. Irudirik bozkatuena Aitor Abio Olazar-en "Laukariz" argazkia izan da. Zorionak, Aitor! Irabazleak 300 euroko bonoa eskuratuko dau eta bono hori Mungiako denda edota ostalaritza establezimenduetan erabili ahal izango dau.




**ERDU EGUTEGIAREN BILA!**
DOAN hartuko dozu, gutuna aurkeztuta.
Abenduaren 21etik aurrera Udaletxeko arkupeetako HAZ bulegoan egongo da eskuragarri.
Astelehenetik barikura: 07:30-16:00 (eten barik).
Eguenetan: 07:30-20:00 (eten barik).

Eta 2019an...
**MUNGIHARRO 2019 GURE JAIAK ETA OHITURAK**
MUNGIHARRO 2019
NUESTRAS FIESTAS Y TRADICIONES
Informazino gehiago
Más información:
mungiharron.egutegia@gmail.com
www.mungia.org
www.facebook.com/mungiarron.egutegia

Las y los mungiarras se implican en las actividades del pueblo y así lo han demostrado con el concurso para ilustrar el calendario municipal de 2018 MUNGIHARRO-Gure auzoak.

**¡GRACIAS POR VUESTRA PARTICIPACIÓN Y POR VUESTROS VOTOS!**

## ¡VEN A POR TU CALENDARIO GRATUITO!

Estará disponible a partir del 21 de diciembre en en la oficina SAC, arcos del Ayuntamiento.

De lunes a viernes: 07:30-16:00 (ininterrumpidamente).

Jueves: 07:30-20:00 (ininterrumpidamente).

Es necesario presentar la carta que se buzoneará.

Fueron casi 100 las fotografías presentadas, de las que el jurado preseleccionó 40. Estas fueron mostradas en la sala de exposiciones del Ayuntamiento. Las 13 fotos más votadas ilustrarán el calendario de 2018. La imagen ganadora ha sido "Laukariz", de Aitor Abio Olazar. Zorionak, Aitor!

# Mungia refuerza la transparencia




Administrazinoaren gardentasuna zabaltzeko, Mungiako Udalak aurrekontuen bistaratzailea jarri dau martxan. Erreminta honek era erraz eta bisualean aurkezten deuskuz udal-aurrekontuak. Bistaratzailea erabilteko www.mungia.org/udal-aurrekontua estekan sartu behar da.

## Nuevo visualizador de presupuestos

